

# beñike

2005eko URRIA,  
137. ZENB. DOHANIK

## TKE ligara



## HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

### Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

### Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

### Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

### Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

### Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Joanito Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Benat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola,

### Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

### Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

### Publizitatea

943 86 15 45 tel.

### Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

### Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

**Baleike** ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien erantzukizunik.

## aurkibidea

librean .....	4
puntocom .....	6
ze berri?	
<b>argazki lehiaketa</b> .....	7
elkarrizketa	
<b>ramon gurrutxaga</b> .....	9
orain hamar urte .....	7
dietetika .....	8
gure zumai zarra	
<b>joxe elosua zubimendi</b> .....	16
kirolak	
<b>arrauna</b> .....	20
<b>gorputz adierazpena</b> .....	26
kultura .....	30
<b>santiago banda</b>	
<b>zine forum</b>	
agenda .....	34



## elkarrizketa ramon gurrutxaga

“Zumaian eta Azpeitian,  
guztira 43 haurrek  
dituzte amabitxi edo  
aitabitxiak, baina  
gehiago ere edukiko  
genituzke”

Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



Zumaiaiko Udala



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA

# Puntanuetara

Pikoteko punta erabili izan dugu askotan herrian, urruti esateko. Izan ere, punta hitzak adiera hori hartzen baitu, urrutikoa, zokoratua, han, ez dakit nongo puntan. Eta halaxe dago Puntanueta, punta batean. Ordea, ez dezagun perspektiba galdu, Zumaiaren moduko herri batean, Zumaiaren eskalan, puntak ez daude hain urruti.

Esan daiteke, zubi txikia dela muga psikologikoa, herria bi zatitan banatzen duena. Zubi txikitik itsaso aldera ala barru aldera bizi. Txorien begiradatik begiratu, zubitik itsasorako eremua ondo egituratuta ikusiko dugu, logika batean antolatua, antzinatik gaur arte irautea lortu duen logika baten bueltan: Erdigunean eta gain batean eliza, eta haren inguruan elkarren arri-mura bizitzera bildutakoek sortutako kaleak, ordena logikoan. Plaza, udaletxea, merkatua, komentua. Behean, errioiari paralelo, kofradia, Erribera kalea, komertzio eta taberna kale kotizatuena, herri bizitzaren


ardatz garrantzitsuena urtetan. Denboran iraun duen eta ondo finkatua dagoen egitura soziologiko urbanistikoa da, herriaren simbolismo dena biltzen duen zatia da zubi txikitik itsasorakoa. Han daude historia, iragana, ospakizunak...

Laster, Puntanuetan zozketa bidez hautatutako 500 lagunek edo familiek, urbanistikak behartutako egitura batean bizi berri bat estreinatuko dugu. Erdigunerik, iraganik gabeko komunitate berria osatzera goaz, paraleloan eraikitako etxe pilo batean. Gure burua antolatu beharko dugu, ohitura berrietara egokitu, distantzia berrietara, elkar ezagutu, harreman sarea sortu, konfiantza... ea puntari punta ateratzeko gai garen.



Jon Maia

dani



# Gora! Biba! Aupa Etxebeste!



xa 2

Etxebestetarren efektua sumatu al duzue zuen inguruan? Ba nik bai, eta ia erotu beharrean ibili naiz ikustera iritsi ezinik. Estreinaldira inor baino lehenago iristeko grina neukan, euskaldunok ere Donostiako Zinemaldiko glamourra zer ote den jakiteko eskubidea badaukagula pentsatuaz, geure hizkuntzan egindako

filmen estreinaldira joanaz. Baina ezin. ServiKutxan ni baino azkarragoak makina bat badaudela ikasi nuen. Lasai motel, esan nion neure buruari. Aste eta erdira, igande arratsalde batez Donostiara joan ginena, baina ezin orduan ere, aretoa leporaino zegoen. Buelta etxera. Azkenean, astegun buruzuri batean eta arratsaldeko saioan ikusi ahal izan dut, ditxososko Aupa Etxebeste!

Etxebestetarrena edozein pelikula izango balitz, ez nuke nik hemen azalpenak ematen jardungo (edo akaso bai! zeinek jakin). Baina ez da edozein pelikula. Aupa Etxebeste! ezin da edozein igande arratsaldetan Aita Marin ikusi, ezta Urbilen ere. Film hau zerbait baldin bada, euskaraz euskaldunontzat egindako produktua da eta hori zinemetan ez da ohikoa. Euskarazko

filma izateaz gain, film ona da. Itxurakeriari umore beltzarekin erantzuten dio hasieran, komedia bihurtuz gero, ukitu absurdoekin. Ai Pitxitxi!

Etxebestetarrek euskaraz dihardute. Beraiena bai euskara naturala, etxekoa, kalekoa. Zerikusirik ez ETBlek 25 urtetan zabalduko ereduarekin. Hobe? Txarragoa? Gertukoagoa bai behintzat, horretan zerikusirik ez.

Etxebestetarrak aktoreak dira eta ni behintzat beraien lanarekin harrিতuta gelditu nintzen. Telebistatik ezagunak zaizkigu Elena Irureta, Ramon Agirre eta Iban Garate. Baina zinean mila buelta ematen dizkiote telebistan egindako saioei eta beste dimentsio bat hartzen du. Etxebestetaren istorioa ikusi beharrekoa da, atzetik honelako gehiago etor daitezten. Honegatik guztiagatik... Gora! Biba! Aupa Etxebeste!

(Zin dagizuet ez didatela komisiorik eman.)



**MENDI - ONDO c.b.**  
ELEKTRIZITATEA  
Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620

# Autorik gabeko eguna

Autorik gabeko eguna izan zen urriaren 9an Zumaian. Erabiltzaileen iritzia jasotzeko inkesta berezia jarri genuen: "Zer iruditzen autorik gabeko eguna ospatzea?". Tontakeria bat edo ideia ona? Denbora gutxian 41 lagunek eman zuten beren botoa eta gehiengo handi baten ustetan autorik gabeko eguna tontakeria hutsa da. Hala dio botoa eman dutenen %85,37-ak. %14,63 batentzat, ordea, ideia ona da. Herri honek jasaten dituen trafiko arazoak konpontzeko balioko balu behintzat...

## INKESTA



## IRITZI BATZUK

### Euskaltel eguna

larri, 2005/10/10 - 02:44 PM .

Kaixol Joxantonio naiz. Ardanza, Euskaltelekoa, eta Udaleri eskerak eman nahi nizkioke atzokoagatik. Benetan bikaina izan da, eta, batez ere, merkeak! Izakoa ikurita (batikoak kexatu egin ziren Euskalteleko kamiseta laranjak ogari eman genituelako), aurten beldur nintzen, igual Udalekoak kamiseta gomia aterako zuten, edo berdea, edo urdina, edo maraduna, edo besteren bat, aukera izugarria baitzegoen; baina ez: laranja izan da, gure kolorea, biinidularitza eta ingurumena, euskalduntasuna eta telefonia elkartzen dituenak. Gero laranja! Bikaina izan da, benetan, eta zorionak eman nahi nizkioke ideia hori izan duenari, buruko neuroni hainbeste berealdira eman diolar. Mila esker eta ea datoren urtean beste horrenbeste pertatzen den!

Wak 2005/10/06 - 11:02 AM

Nor asko gustatu zaidana, Udalak Autorik gabeko egunaren propaganda gisa banatutako omia izan da. Asken orrian, gure herri trafikoa buruko informazioa ematen da. Testuak, honela dio:

"Udalak hartu dituen neurriak esker, Zumaian, hirigunean ibilgaien joan-etorria asko gutxiu da".

Udalak hartutako ze neurri? Bakarra okurritzen zait: igandetan jendea autoekin herrian zartzen ez uztea. Bestelako neurriak ez dit nik behintzat ikusi. Herriko trafiko arazoak hor dirau, eta mafiak askotan gainera. Adbideak. Zumaian dagoen kale zentralak negutia, Embera kaleak, kamiseta geroaldia dirudi geroetan (baita atzeratueta ere), eta hori ez du inork kontrolatzen.

Autorik gabeko eguna ospatu baino, hobe zuten trafikoa arazoari benetako itenbideak planteatzen hasi.

Torkuato 2005/10/07 - 02:50 PM

Aurten ere amakastatua izango da eguna, seguruki Herriko egunetarako ez dago diru arazorik, gainera! Herriaren adibide, shurka kamiseta naranja banatzen ari dira egunotan, heldu eta umeentzat. Niri ez zait toketuko ez etxe, ez egonaldi, kanpora joateko azmotan naiz eta, inon, ez dakit autokan ala tenek.

Udalak banatutako omietan beste zerbaitek eman zidan abertzioa: zubi beldirik sartutako auto kopurua %20 jaitsi dela aurten. Walk lehenago ezan izan duen bezala, gaitontzekoa ez da herria, itxura denez. Jaitziera hori ulertzeko, gainera, nahikoa da pare bat gauza kontuan izatea: lehen baino asko toki gutxiago dago aparkatzeko (Arriako plaza eta Kamelo Unarue) eta gero eta jende gehiago bizi da zubiaz bestaldera.

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12  
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS  
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16



Urriaren lehen astean eman zen ezagutzera Baleikeran I. Argazki Lehiaketako irabazlearen izena. Guztira 25 argazkik hartu zuten parte lehiaketan eta epaimahaiaren eta erabiltzaileen ustetan Gorka Zabaletaren "Eska" izan da onena.

Irudi onena aukeratzeko, urriaren 5ean elkartu zen epaimahaia. Lehenik eta behin, 25 argazkietatik bi onenak aukeratu zituzten epaimahaikideek. Bi horietatik irabazlea zein zen erabakitzeko, baleike.com-eko erabiltzaileen botoak eta iritzia erabili zituzten eta horien ustetan, Gorka Zabaletaren "Eska" argazkia zen onena.

Bi lagunentzako afaria da lehiaketaren saria. Zorionak, Gorka!

## LANPOSTUA

### BALEIKERAKO KOORDINATZAILEA

Baleike kultur elkarteak langile bat kontratatu nahi du, aldizkaria, web gunea eta kultur elkartea koordinatzeko.

#### EZAUGARRIAK:

- Pertsona dinamikoa
- Harremanetarako eta talde-lanerako gaitasuna
- Euskara-maila ona eta idazteko erraztasuna
- Informatika ezagutzea

Baloratuko diren beste zenbait alderdi:

- Zumaiarra izatea
- Kazetaritza edo antzeko ikasketak
- Quark programa eta maketazioa oro har

Curriculumak urriaren 31 baino lehen bidali beharko dira honako helbideetako batera:

elkartea@baleike.com

BALEIKE Juan Belmonte, 29 behea 20750 ZUMAIA

Ramon Gurrutxaga kooperantea

# "Aitabitxi edo amabitxi eginez asko laguntzen zaie haurrei eta etxeari"

*Ramon Gurrutxaga duela bederatzi urte joan zen lehen aldiz Boliviara haurrei laguntzera. Garai hartan Cochabambara joan zen urtebetez; gaur egun, berriz, urtero bi hilabetez Santa Cruzera joaten da lehen bidaia hartako*

*helburu berberarekin. Horretarako, irakasle lanbideak uzten dizkion oporrez baliatzen da. Bertan egiten duen lanaz, hango egoeraz eta orain arte egondako aldaketez hitz egin digu.*



**Bolivian haurren etxe batean zabitza laguntzen. Zein da eskualde haren egoera?**

Aurtengo ekaina aldean gerra zibila hastekotan egon zen. Indigenak zuriei aurre egiten ari dira, zuriek Santa Cruzeko independentzia eskatu nahi dutelako. Santa Cruzen petrolioa eta gasa dituzte, baina kanpotarren menpe daude. Kanpokoek dirua dutenez, independentzia eskatu nahi dute eta indigenek aurre egin diete independentziarekin beraiek ez dutelako bizitzeko baliabiderik izango. Orain transizioko gobernu dago eta hauteskundeak Gabonetan izango dira. Indigenak indarra hartzen ari dira eta botua ematera joateko deia egin dute. Ez dakit abenduan zer gertatuko den, baina jendeak esaten du nahiago duela gerran hil gosez hil baino.

**Bakarka edo erakunde baten bidez egiten duzu kooperante lana?**

Ni independente ibiltzen naiz.

**Zein lan egiten duzu han?**

Batetik, hemendik dirua eramaten dut. Niri diru hori eman egiten didate eta nik sendagaiak, arropak... erosteko erabiltzen dut. Bertan nagoenean, berriz, goizetan erizainari laguntzen diot kolpe eta hezurak sendatzen. Arratsaldean, kirola egiten dut hango umeekin. Normalean olinpiadak antolatzen dizkiet haurrei, eta txapeldunei sariak ematen dizkiet: dominak, agendak, etab.

Kirolarena bukatzean eta ohera joan arte, bertako gauzak egiten laguntzen diet. Nik gauzak aldatzen ditut han nagoen denboran eta urtean zehar joaten ez diren lekue-tara eramaten ditut: igerilekura, zinemara...

**Zergatik daude haur horiek etxe horietan?**

Beraien familiak puskatuta daudelako. Batzuk beti bizi izan dira kalean; besteei, berriz, ama edo aita falta zaizkie, eta azken batzuek etxean tratu txarrak jaso dituzte. Denetik dago. Han, tratu txarrena izugarritzko arazoa da:

“Ez dakit abenduan zer gertatuko den, baina jendeak nahiago du gerran hil gosez hil baino”

gizonak egunero mozkortu egiten dira eta haur eta emazteak jo egiten dituzte. Gainera, garrantzitsuagoa da gizona norberaren seme-alabak baino, eta horregatik haur askok gure etxetan bukatzen dute. Han adin ezberdinetako haurrak jasotzen dituzten bost etxe daude eta ni hiru eta laugarrengoa, 12-15 urte artekoekin, ibiltzen naiz, batez ere. Horietako batzuek ez dute bere aitaz ezer jakin nahi.

**Etorkizunean pentsatzen dute-nean zer imajinatzen dute?**

Hor arazo bat dago: gure etxean dauden bitartean lan guztiak hezitzaile eta mojek egiten dituzte eta haurrek handik irtetea ez dakite etxeko lanik egiten. Horregatik eman


dekorazioa  
**ALBERDI**

696 726188  
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

**OSTOLAZA**  
BURDINDEGIA

Jose M<sup>a</sup> Korta Industrigunea  
A1 - 4. Pabilioia  
tel.: 943 86 50 68  
fax: 943 86 13 45  
e-mail: denda@ostolaza.com  
www.ostolaza.com



**TXINGURRI**

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3<sup>a</sup> 20.800 ZARAVITZ  
(GIPUZKOA)  
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

- Jardinen diseinu ... mantenimendua
- Nekazaritza zerbitzuak
- Kirol zelaien mantenimendua
- Txostenak ... aholkularitza teknikoak.
- Balaztioak



**GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA  
**ARGIDENDA**

Era guztietako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23  
Tel. mugikorra: 608 143409

**Emilio Perez**  
Elektronika, telefono eta instalazio  
elektrikoen sarmentu eta konposaketa

**ADI**

BASADI 2B  
20750 ZUMAIA  
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157  
E-mail: adiele@euskainet.net



**Zu zeu**

**Noiztik duzu ingurukoei laguntzeko gogo hori?**

Beti eduki dut besteei laguntzera norabait joateko gogo. Duela bederatzita urte arte dirua emanaz laguntzen nuen, baina nire benetako asmoa bertara joatea zen. Zaila da joatea ez baitakizu norekin egin lehen kontak-tua. Ez dakizu zer eta nola egin.

**Noiz sortu zitzaizun Boliviara joateko aukera? Daramatzazun urteetan beti leku berberera joan al zara?**

Gurekin moja filipinar batek egiten zuen lan eta hari esan nion kanpora laguntzera joateko gogo nuela. Hark bere probintzialekoekin hitz egin zuen eta haiek azaldu zidaten etxeak zituztela Txilen, Dominikar Errepublikan eta Bolivian. Azken toki horretan hezitzaile bat behar omen zuten eta hara joan nintzen ni, lanean eszendentzia eskatu-ta. Lehen urtea Cochabamban pasa nuen eta denborarekin konturatu nintzen joaten nintzen lehen aldia izateko urte-bete gehiegi zela. Gainera, hezitzaile moduan hasieratik gauzak aldatu eta agintzen hasi behar nuen.

Gero "Juan 23" deituriko barnetegi batean egon nintzen. Jesuitek zeramaten barnetegi horretan hamabi eta hogeita urte arteko gazteak zeuden. Hura mistoa zen, baina mojek ez zuten nahi neska-mutilak elkarrekin ibiltzerik, neskak haurdun geratzeko arriskua zegoelako. Gazte haiei askatasun pixka bat ematen hasi nintzen, baina beraiek trukean arduratsuagoak izan behar zuten. Beraiek gustura zeuden jakiteko astero bilera bat egiten genuen. Han hasi nintzen kirol txapelketak antolatzen beste eskolen aurka. Hango jendearekin hasi nintzen hemen lanean.

Hurrengo urtean Bidaniako obispoarekin egon nintzen eta hark Trinitade probintzian zegoen Beni hiriko barnetegira joatea proposatu zidan. Udan joan nintzen eta handik aurrera udan bakarrik joateko ohirari eutsi nion.

Urtebete geroago Cochabambara itzuli nintzen. Nik kaleko umeekin egin nahi nuen lan, baina han oso gogorra zen eta antolakuntza txarra zen. Egun batean berrogei haur azaltzen ziren eta hurrengoan zortzi. Sei hilabetez gelditzeko proposatu zidaten, baina egoera txar hura aldatzeko askatasunik ematen ez zidatenez ez geratzea erabaki nuen. Orduan, goizez ospital batean hasi nintzen erizainari laguntzen eta arratsaldean haur haiekin jarraitzen nuen.

Azkenean, Santa Cruzera joan nintzen han kaleko haurrak zeudelako. Horrela bukatu nuen "Hogar de Niños Santa Cruz"-en. Hori duela bost urte gertatu zen eta oraindik ere han jarraitzen dut.

**Zer ematen dizute hango haurrek gainerakoek ematen ez dizutenik?**

Ez dakit. Hemen lana obligazioagatik egiten dugu. Han, ordea, beste gauza bat da. Ez dakit zehazki zer ematen didaten, baina bizitza-edo, beste gauza bat da. Han gogo gehiago jartzen dut. Beste poztasun bat da, beste ilusio bat. Gainera, beste harreman bat dauka, egunero beraiekin gaude eta harremana oso berezia da. Nik helduei adinako errespetua diet eta haiek niri ere errespetu handia didate. Beste bizitza bat ematen dit eta oso gustura egoten naiz. Nik ilusioa ematen diet eta haiek niri ere bai. Harremana hartu-emanekoa da.

behar zaie askatasuna, beraien kabuz ikas dezaten. Bestalde, ez dakite aurrezten. Uste dute dirua dutenean dena erosi behar dutela eta esaten dute "Bihar Jainoak lagunduko digu!". Hango jendeak buruan duen ideia bakarra Espainiara joatearena da. Haientzat paradisua da, hori da telebistatik jaso duten mezua.

Batzuek diote profesionalak izango direla eta ni horiei laguntzeko prest nago. Orain ere, etxean egon ziren hiru gazteri laguntzen ari natzaie, ikasketekin aurrera egiteko. Horretarako haurrei beka eman behar zaie. Beste asko, berriz, handik irtetean kalera itzuli eta galdu egiten dira. Tristeena da handik irtetean ez dutela elkarrekin harremanetan jarraitzen. Zazpi urte pasatzen dituzte han eta gero ez diete bisitarik egiten ez hezitzaile-

"Egoera aldatu da, baina okerrera. Lanik ez dago, gazteak gehiago irteten dira eta kalean daude"

leei, ezta beraien lagunei ere. Niri, berriz, noizbehinka etortzen zait norbait.

**Lehen esan duzu hara dirua eramaten duzula. Nola lortzen duzu diru hori?**

Batetik, Zumaiako Udalak urtero laguntza ematen digu. Orain arte 2.000 eurokoa eta aurtun 4.000koa. Bestetik,

Azpeitiko enpresa batek kuadroak saltzen lortzen duen dirua ematen dit. Azkenik, kaleko jendeak aitabitxi eta amabitxi egin gabe laguntzeko gogo du eta dirua ema-



Zer sentitzen duzu...

...**Boliviara iristean?** Ilusio handia. Niretzako nire etxea da Bolivia. Beste toki batzuetatik proposamenak heldu zaizkit, baina ez dut onartu. Beste mundu bat da eta nire mundua dela sentitzen dut. Hemen mundu bat eta han beste bat dudala iruditzen zait.

... **umeen irribarrea ikustean?** Poza. Barre asko egiten dute, oso alaiak baitira.

... **haurren batek "eskerrik asko" esaten dizunean?** Ez dute esaten. Ez dakite zer den. Ez dut pentsatzen esango didatenik, baina ez zait axola, ni ez bainaiz eskerrak jasotzeko joaten hara.

... **batzuek hainbeste dugula eta beste batzuek hain gutxi dutela ikustean?** Injustizia hutsa dela. Injustizia hangoa da: gobernuburuek dirua daukate, baina herri-tarrei ez zaie iristen.



"Hango jendeak buruan duen ideia bakarra Espainiara joatearena da. Haientzat paradisu da, hori da telebistatik jaso duten mezua"

ten dit. Diru hori ondo etortzen zaio etxeari 150.000 dolarreko aurrekontuarekin 160 haur mantendu eta hezitzaileen soldatak ordaindu behar baititu. Diru laguntza garrantzitsuenetako bat aita-ama bitxien bidez iristen dena da. Horiek 200 dolar ematen dituzte eta horietatik 150 etxearentzat dira eta beste 50ak haurrentzat (hezitzaileek administratzen dizkiete). Gero, umearen argazki bat bidaltzen zaio aitabitxiari edo amabitxiari eta umearekin harremanak hasten dituzte. Zumaian eta Azpeitian, guztira 43 haurrek dituzte amabitxi edo aitabitxiak, baina gehiago ere edukiko genituzke. Bestalde, datorren urtarrilaren lauan, Kursaaen, dantza akademia baten 25. urteurrena ospatuko da. Bertan, Lucia Lacarra eta beste dantzari batzuek hartu-

ko dute parte. Jaialdi horretan sarrerarekin lortutako dirua Boliviako etxea berritzeko erabili nahi dugu: eskolarako altzari berriak erosi, obra txikiren bat egin eta sukaldea berritzeko. Eskola berritzea ongi etorriko zaigu, etxeko hurrez gain auzoko haurrak ere bertara joaten baitira.

**Egoera ikusita, zein da Boliviako gobernuaren jarrera?** Kaputxino Salesiarrak etxea eraiki nahi zutela esanez joan zirenean, haur bakoitzeko zerga ordaindu beharko zutela esan zieten. Orain pixkat laguntzen du gobernuak eta prefekturarekin ume bakoitzak 0,30 dolar kobratzen ditu eguneko. Hortik aurrera ezer ere ez.



"Gazteei askatasun pixka bat ematen hasi nintzen, baina beraiek trukean arduratsuagoak izan behar zuten"

**Nazioartetik iristen al da laguntzarik?**

Badaude laguntzak. Alemaniak, adibidez, laguntzen du. Beste batzuek ere laguntzen digute, baina diru hori nonbait galtzen da bidean eta ez da iristen. Presidenteak postua hartzen duenean negozioak bereganatzen ditu eta inguruko postuetan bere familiarte-koak jartzen ditu. Horrela, diruarekin gelditzen da.

**Jadanik 9 urte daramatzazu Boliviari laguntzen. Uste duzu egoera aldatu dela edo aldatzeko bidean dagoela?**

Nik uste dut aldatu dela, baina okerrera. Lanik ez dago, gazteak gehiago irteten dira eta kalean daude. Unibertsitatera joateko ez dute dirurik eta, beraz, ezin dute matrikula ordaindu. Amaitzen dutenak oso gutxi dira eta hasten diren gehienek ere utzi egiten dute. Egoera zaila da.



**Mota guztietako altzariak**

Xanti Osa

Amaia plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385



**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

Karmengo Ama, 14  
E-20749 **Airra** (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskalnet.net



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L.



**AUTOS  
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

# ipuin harrigarriak

Herri literaturaz gozatzeko  
kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

1



1  
berria

2



2  
berria

3



3  
berria

4



4  
berria

Ipuin harrigarriak 1

Kastillopranko • Biribil-biribilak

Ipuin harrigarriak 2

Dar-dar • Ondo eginaren ordaina

Ipuin harrigarriak 3

Gatza ala erregea • Biziak ezagutzeko hil

Ipuin harrigarriak 4

Zapatari asmatzailea • Zerraldoan bizirik

Ipuin harrigarriak 5

Ikazkina eta heriotza • Besterik ez bezalako kapela

Ipuin harrigarriak 6

Estudiante Tonto • Ezkonberriak

Ipuin harrigarriak 7

Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki • Zeruko berriak

Ipuin harrigarriak 8

Pepetxu eta Popatxu • Kardulatza salatari

5



5  
berria

6



6  
berria

7



7  
berria

8



8  
berria

Urriaren 8tik aurrera  
ASTEBURUETAN



+ 3 €

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bizkaiko Foru Aldundia



Bizkaia

Foru Aldundien bitartez **berria**

# Orbelak airez aire



Hostoak hasi dira erortzen, baita hau idazten duenaren ileak ere. Hainbeste kostatutako brontzeatua ere jada joan zaio askori. Udazkenaren "abantailak" dira hauek neska-mutilok. Beno, goazen harira. Sar gaitezen denboraren makinan eta egin dezagun 10 urte atzera.


1995eko urriaren 22an AEK Eguna ospatu zen geurean eta hila-bete hartako Baleikek gehigarri berezia eskaini zion. Festa egun hartako egitaraua, Zumaiako aukeratua izateko arrazoiak, inkesta eta beste hainbat atal zituen gehigarriak. Horien artean, Pello Enparanek Zumaiako AEKri buruzko idazten zuen, 1985ean sortu zenetik euskaltegi propioa lortu zutenerakoa. Tartean lan asko, ilusioa, hika-mikak izan ziren. Orain, 10 urte geroago, hor jarraitzen du AEK-k tinko lanean.

Zer da Jon Maia? Bertsolaria? Abeslaria? Idazlea? Horiek

denak? Baleikeren 17. zenbaki hartan elkarriketatu zuten eta bertsolaritza, musika eta gazte mugimenduari buruz jardun zuten. Bertsolaritzari etorkizun handia ikusten zion, "ze bertsolaritza kameleoi bat bezalakoa da, edozein lekutara molda daiteke, edozein kulturatar". Negu Gorriak, Def Con Dos eta beste hainbat talderentzako kantuak idatzi ondoren, lan horretan jarraitzeko asmoa zuen, "ze ilusioa egiten du zure kantak diskoetan ikusteak. Ilusio handia egiten du, bai, jendea zure kantak abesten ikusteak, betirako geratuko diren gauzak dira horiek". Gazte mugimenduari zego-kionez, ez zuen uste Jonek gazte mugimendu bat zegoenik: "Mugitzen den jende kopuru txiki bat dago, kezka daukan jende bat dago, eta askotan jende kopuru mugatu horrek bere borondatez herri osoarentzat egiten du lana, eta ematen du herri osoan badagoela zerbait". 1995 hartan mugimendu gutxi bazegoen, zer ote dugu orain?

Kiroletako orrialdeetan Luis Mari Alberdi eta Gotzon Enbil dauzkagu. "Bi zumaiar zerua ukitzeko zorian" zen elkarriketaren izenburua. 22 urtez beherako Munduko Zesta Punta Txapelketa jokatu berria zen eta bikote honek bigarren postua lortu zuen. Profesionaltara salto egin gabe zeuden oraindik eta beraien helburuak nahiko xumeak ziren. Ez zekiten zenbateko pozak emango zituzten.

Zer irakurri gehiago bazen zenbaki hartan: 400 mila erreboilo galdu ondoren, Orrua enpresak izan zituen galerak; Abelin Linazisororen lehen liburua argitaratzea; Narrondo ibaian altxa ziren hormak; etab. Baina lekurik ez dugunez, datorren hilabetera arte agurtzea besterik ez da geratzen. Adio.



gosi bidun kornioa - bestakategoria  
gasbia: 15m-4m.

**GARRAIOAK**  
Asensio Artebe Iturbe

Tel: 943 557 189 / 655 706 557  
Izardari, 5-2A (Zumaia) • Aitzpigoita, 16-E (Mendiara)

**gofi**  
haur jantziak

Amaia plaza z/g Tel. 943 860959

**TALAI**

INMOBILIARIA 943 143361  
BIDAIAK 943 143323  
Ortega y gasset, 1

**SIWA**  
Belardenda

Basadi 9  
943 143404

- Elikadura, belarrik, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Esthetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

**Arkupe**

Okindegia  
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

**Zumaia Hotela**

Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64

# umeen gizadasuna

**U**meen gizadasuna gero eta arazo larriagoa bihurtzen ari da gaur egungo gizartean; azken ikerketen arabera, 2010. urterako, 4 umetatik 1 gizona izango da, horrek eman ditzakeen arazo guztiekin: heldu gizenak izango dira, arazo kardiobaskular eta diabete arrisku handiagoa izango dute, bizitza motzagoa, arazo psikosozialak (autoestimutim baxua, depresiorako joera...), arnas arazoak, gaitz gastrointestinalak eta gibebeleoak, mugikortasun arazoak...

Hainbat faktorek eragiten dute gizadasun horretan: alde batetik, faktore genetikoko daude; hau da, gurasoetako bat edo biak gizenak badira, umea gizona izateko arriskua askoz handiagoa da. Bestalde, elikadura daukagu, faktorerik garrantzitsuena: izan ere, umeek kaloria, koipe eta azukre gehiegi hartzen dute,



Izaga Garcia  
Dietista

ia ez dute jaten fruitu, barazki edo arrainik, elikagai prozesatu gehiegi hartzen dituzte... Eta, azkenik, bizitza estiloak ere eragiten du: umeak gero eta sedentarioagoak dira; eta kontuan hartzekoa da 3 eta 7 urte bitartean 10 ordu baino gutxiago lo egiteak gizadasunarekin zerikusia duten arazo hormonalak ekar ditzakeela.

Gurasoek, askotan, ezjakintasun edo ezinagatik, ez dizkiete balio egokiak erakusten umei: askotan umeek nahi dutena jaten dute eta nahi duten orduan, "kapritxo" eta goxoki gehiegi jaten dituzte,

ez da mahaian eserita eta behar bezala jaten, ordutegiak ez dira betetzen... Gogoratzekoa da elikadura ohiturak 5 eta 8 urte tartean finkatzen direla.

Gomendio orokor hauek baldin badakizkigu ere, beste hauek ere gogoratzekoak dira:

- Azukrea eta berarekin egindakoak (galletak, opilak, freskagarriak, gozokiak...) murriztu.
- Kontuz olioarekin (arrautza-irinetan pasatuak eta frijituak)
- Lekazi eta barazkien kontsumoa handitu (barazkiak batez ere entsaladan)
- Ogia, pasta eta arroz integralak sartzen joan
- Esnekien kontsumoa kontrolatu (esnearen ordezt, hobe edari begetalak: soia, urra, oloa, arroza...).
- Astean 3-4 arrautza nahikoak dira.
- Kontuz hestebeteekin, gogoratu meriendarako beste aukera batzuk badaudela.
- Koipe gutxiko haragiak aukeratu.
- Gutxienez 2 fruta egunean.
- Goxokien ordezt, fruitu lehorrak edo bestelakoak aukeratu.
- Elikagai prozesatuak murriztu eta elikagai fresko eta naturalak areagotu.
- Kirola egin, sedentarismoa ebitatu.

Hala ere, kontuan hartzekoa da familiaz aparte beste entitateek ere parte hartu beharko luketela: eskolek, gobernuak, elikadura industrietan (produktuen konposaketa egokiagoa, gezurrezko iragarkiak ez erabiltzea...)...

## Alberdi

*Gizonezkoen moda*



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatu

# Juaristi

## JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

## "Gosea pasatu ginien. Batzuetan gutako batzuk baserrietara hurreatu eta ahal zena lapurtzen ginien"

ABELIN LINAZISORO

**Orduan, laburbilduz, lehenbizi Zaragozan, gero Valentzixan eta azkenik Teruelen ibili zinen, ezta?**

Ez. Lehenbizi Zaragozan bai, baina handik Teruelera jun gitxuan. Hamen unibertsitatea garbitzen jardun ginien. Obra bat ere ein ginien. Terueletik Valentziara. Valentzixan arriskua pasatuta zeola esan zigunetean, Jakara. Pirinioetara. Han makisak omen zibeztian. Eta zein eta gu makisak harrapatzera! Eerra kontua. Mendixan han ibili gitxuan, hara, honea eta beste alde, baina eundo ezer bilatu gabe. Ez makisik, ez tirorik eta ez ezer. Gu "prisionero-trabajador" gitxuan. Agindua hartzen ginien: *Hay que subir a tal monte!* Bidean bordak ikusi eta sarjentuak: *¡Tened cuidado!* Gu jun eta... borda hutsa. *Bueno vascos a pasar el día aquí,* eta hantxe egun osoan ezer ein gabe. Jaten eskas Pirinioetan. Hoixe txarra. Gosea ere pasatu ginien eta batzuetan gutako batzuk baserrietara hurreatu eta ahal zena lapurtzen ginien, batzuetan erbixa, bestetan oiloa, eta jatekoa denontzat izaten zanez, danok gustora. Baita jefeak ere. Baina lagundu ere, han, bertako baserritarrei-eta lagundu ere eiten ginien. Egurra ebakitzen-eta. Karruetan erreka ondotara jun, erorita ziben arbolak ebaki, manduetan kargatu eta baserritarrei eramaten ginitien. Lapurreta kontua oso gutxi ein ginien, zer zeon, ba, Pirinioetan? Arbola gogotik eta mendixa. Ahuntz zaharrak garbitu eta jan ere ein

"A ver, vasco, vosotros sois buenos trabajando y a ver si venís a ayudar. *Eta guk: Bueno, ya iremos. Eta lagundu eiten ginien.*"



Beste batzuetan kapitainak baserritarrei patata hartzen zioan, gu jun eta patata jaso. Honenbeste kilo hartu eta kapitainak nahi zuena pagatzen zioen. Lapurtu genuela ez

esateagatik. Zenbat pagatuko zian, ba, hark? Hutsa txarri haixek. Eta baserritarra ixilik.

**Beno, baina lan egiten zenutenean, zerbait emango zizueten, ezta?**

Bai. Lana ein ezkeo beti jasotzen dek zerbait. Horretan kejarik ez ginien. Eta lana, berriz, noixean behin. Boluntaixo. Jendia ondo portatzen huan. Komeni ere bai. Guri ere komeni zikun. Valentzixan, adibidez, gu presoak gitxuan eta bertakoak ere gizona, semea edo kuñaua preso zien eta alkarri lagundu ein behar. Han, Valentzixan gizonik ba al zeon, ba? Andriak amorratzen guk beaxeï laguntzeko. *Mañana vamos ha recoger patata* eta hamen atxurra-kin bezela, han dana makinakin altxatzen zien. Hango jendia portatu huan, bueno, lehen ere esan diat, komeni ere bai. Bestela lurrean dana usteldu eingo huan. Dana alperrik galduko huan. Laranjak pena ematen zien. Danak usteltzeko zorixan...

**Langile falta ikaragarria orduan.**

Langile falta eta indar falta ere bai. Pixu haundixak eramateko indarrak ez. Gehixenak emakumeak hitxuan-eta. Makinetan jasotzen zien, baina gero indarrak ez hura jaso eta kamioetan kargatzeko. Guk lana ein eta gero: *Vamos a merendar,* esaten zien. Eta andar haixekin batera meriendatzera

edo jatera. Zenbat kamioi kargatu ote gendun!

### Asko joaten al zineten lanera?

Konpainia osoa. Boluntaixo. Hiru-lau ordu lanian jardun eta lau-bost duro kobratzen ginien. Diru haundixa orduan. Eta jana ere bai, e? Millonai-xo bezela ibiltzen gitxuan. Oso ondo.

### Jakara bueltatuko al gara?

Bai. Han enlaze ere ibili nitxuan. Herritik mendira eta menditik herrira, Hecho, Ansó eta alde hoi-xetan. Behin batean Hechotik gora hamabost-bat kilometro ein ginitien eta sargentuari: *Por aquí vamos mal*, esan nitxuan, aldre-bezko bidea hartu zian, ba, hark. Lagunei ere esan nitxuan: Gaixki gatxiazatik. *Por ahí no*, nik. Eta sargentuak haserre: *¡¡Tú me vas ha enseñar a mí o qué!!* Lagunak esan zien: Exok kasurik ein. Hor konpon! Hi, baina seguru al hao gaixki goazela? Eongo ez nauk, ba, seguru! Halaxe segi ginien bide txarretik aurrera Frantziko muga aldera. Iluntzen ari huan. Derrepente karraxiak, hi! *Alto!! Alto!!* Alemanak aurrez aurre! Joe! Hiru edo lau txakurrekin azaldu hitxuan. Gu fusil zaharrekin eta haixek arma berri-berrixekin. Makis! Makis!, esaten zien alemanak. Gu makisak ginakoan, hi! Gu preso hartu eta beaixekin kanpamentura. Aleman haixetako batek bazekian erderaz eta gu soldalduak giñala esan gitxuan. *Ahora qué me dice usted?*, nik sarjentuari. *¡Cállese usted!*, hark. *¿Cómo me voy a callar?*, nik. Ez zian arrazoirik eman nahi inutil hark. Alemanak Frantziko muga zaintzen ari hitxuan. Beaixen komandantiena eraman eta honek afaltzen emateko agindu zian. Gure aldean haixek, bai, ondo! Armak eta

jantxizak berri-berrixak eta jateko eerra. Bero-beroa. Tripa eerki bete ginien, han bertan lo ein eta hurrengo goizean martxa.

### Noiz arte egon zinen Hueskan?

1946 arte-edo. Pentsa zak, Bigarren gerra mundiala akabatu zala ere ez gitxuan enteratu. Eta gure kapitainatik izan bazan, oaindik han eongo gitxuan. Esangoiat zeatikan hartu gendun lizentzixa. Behin batean Jakako



*“Iluntzen ari huan.  
Derrepente karraxiak, hi!  
¡¡Alto!! ¡¡Alto!!  
Alemanak aurrez aurre!  
Joe! Gu fusil zaharrekin  
eta haixek arma berri-  
berrixekin. Makis! Makis!,  
esaten zien.”*

Kuartel Jeneralera jeneral bat etortzeko zala-eta, menditik jatxiaz eta hara jun gitxuan. Rebista pasatzen hasi dek jeneral hau eta derrepente txokatuen keinuak eiten hasi huan. Gu mendikok alkarrekin gitxibeztian eta hurreatu eta gutako bati galdetu zioan: *¿De qué quinta es usted?*, han dana soldau gaztea zeoan eta gu zaharrak. *De la quinta del 40*, honek. *¡¡De la quinta del 40 y todavía están aquí!!* Si señor, hark. Aiba laletxe! Haserratu dek gure jeneral

hau eta galdetu zioak kapitainari: *¿¡Desde cuando están estos aquí?!* Hark ez zekian zer esan. Mendian ibiltzen ginala eta ez dakit zer eta badakit zer. Eta jeneralak orduan: *¡A ver! Todos los de las quintas del 39 y 40 que salgan aquí fuera!* Gu 30-40 bat izango gitxuan. Beste danak mutil kokorak ematen zien gure ondoan. Bizarririk gabe-eta asko. *¿¡Pero cómo están ustedes todavía aquí!?*, jeneralak atzea berriz. Buelta eman eta kapitainari esan zioan: *¡¡Prepare inmediatamente todos los papeles para estos!! ¡Voy a volver mañana al mediodía y si encuentro aquí algunos de estos habrá castigos!* Aibadio! Paperak eitea segituan.

Gero, gure komandantiena jun eta hura bronka bota ziona!: *¿¡Pero usted cómo les ha tenido tanto tiempo aquí?!* Hura etorri berrixa huan eta honek: *Para cuando yo llegué aquí estos ya andaban en el monte y yo...* Gero, gurena etorri eta: *¿Cómo tiene usted las botas? Dana puskatuta. Eso fuera! Denles alpargatas o lo que sea a estos!* Orduan abarketa asko ibiltzen huan. Abarketa valentzianoa. Hamen sokakin eiten zan bezela, hangoa arrozen landariakin. Landare ihartua, dana gurutzatuta abarketa osatzen. Zeharo eskasa. Berehala puskatzen hitxuan.



**Mendian botekin ibiliko zineten, ba?**

Botak diok? Bai. Hala moduz-ko oinetakoak. Badakik, elurra eta zikinakin danak hondatuta. Kuarztelean harrika botatakoak hala moduz josi eta aurrera. Eta hala ere ez nian inongo gai-xotasunik izan, ez buruko minik, ez hankekorik eta ez kris-torik. Han elurretan gosiakin eerki gogortu gitxuan. Ba, hori. Jeneral horrek marrua ein eta gero, laster asko ein zitzen paper danak. Hurrengo goizeko 8,30tako paper banakin kalean gitxuan. Estazixora zuzenean.

**Jeneral hura azaldu ez balitz, zuek, orduan, beharbada beste hiru edo lau urte egingo zenituzten han.**

Edo gehixo. Dudik etzak ein. Hurrengo goizean: *Ya os mandaremos todos los papeles que faltan a casa*, esan zien kuartelekoak. Kaka. Gaur arte. Zenbat denbora ein gendun, zer lan ein giñuzen, "buena conducta" eta hori guztixa falta. Paperak oaindik ez ditxuk ailegatu.

**Zumaiara ailegatu eta hemen nahiko lan ba al zegoen?**

Bai. Lana nahiko bazeoan orduan. Baina ni, diru gehixo irabazteko, Pordillosekin hasi nitxuan. Arrantzale. Neguan jai eiten ginien eta orduan



*"Guk lana ein eta gero: Vamos a merendar, esaten zien. Eta andar haixekin batera meriendatzera."*

Potxotxona-edo, lana zeon tokira. Moilan ere nahiko lana einda natxiok karga-desgarkan barkuetan.

**Zumaiara ailegatu zine-nean oraindik raziona-mentua egongo zen, ba?**

Bai. Bazeoan. Geroago kendu zien hori. Baina gu ondo moldatzen gitxuan. Itxian baatza ginien eta patata dala eta beste zerbait dala, ondo.

**Zenbat gizon zineten arrantzako barkuan?**

Ba, hamaika-hamabi gizon. Gehixen bat antxoa eta atuna harrapatzen ginien. Oain bezela. Nobien-

brearen erdirako lana laga

eta martxoaren azken alderako haste gitxuan arrantzan. Frantzia aldeko kostan nahi aina arrai eoten huan. Beti. Urte guztixan. Zenbat arrai harrapatu ote gendun! Bota ere bai, e? Horrela derrior ahitu behar. 200 arrua-edo kargatu barkuan eta, hi! - abixua hartzen ginien- honelako lekutan antxoa izugarri ona zeok! Haundixa al da? Bai! Lehen harrapatutakoa ureta bota eta haundixa zalakoan karga berrixa hartu eta askotan igual-iguala izaten huan.

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
  - Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
  - Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak
- P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

*gidatzeko baimen guztiak*



**ALBAITARITZA KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIAK-

astelenetik ostegunera 16:00-19:00  
ostiralak 11:30-19:00  
larunbatak itxita  
aldez aurretik deitu

Basadi, 7 behea  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean



*“Botak diok? Bai.  
Hala moduzko  
oinetakoak. Badakik,  
elurra eta zikinakin  
danak hondatuta.  
Kuardelean harrika  
botatakoak hala  
moduz josi eta  
aurrera..”*

**Lehen harrapatutako dana hilda egongo zen, ba?**

Eongo ez huan, ba! Ur meheak hitxuan. 8-10 braza bakarrik. Eta antxoa izugarri eerra eoten huan. Belbelta. Berrogei barku eta berrogeixak gauza bera eiten ginien. Noizeon noix 30-ekoen partez 32-ko antxoa harrapatzen ginien. Baina hori ez dek ezer. Berdintsua beti.

**Beraz, zuk erretiroa hartu arte itsasoan jarraitu zenuen lanean, ezta?**

Ez. Lehen laga nian. Bizkar hezurra gaizki nitxikan eta “Baja de Mar” hartu

nian. Gero, Akeliño eta Joxe Luixekin Oikixan pixkat ibili nitxuan. Familixakin pixkat ibili eta gehixo kito.

**Zu urtero Karmen egunean Donostiara joaten zara, ezta?**

Bai. Beaixek deitzen zie. Urtero arrantzale jubilatuaq juten gaitxuk. Lehen Ximon anaixa, Peaso eta koadrila juten gitxuan. Iaz eta aurten Kariño etorri dek nerekin. Aurreko urtetan bakarrik ibiltzia ere tokatu zikak.

**Karmen egunean zer omenaldi mota egiten dizuete?**

Aiuntamentuan hizketaldi bat eiten die eta gero mezeta. Parte zaharreen bazeok, ba, eleiza txiki-txiki bat, Karmengoa-edo, ba, hara. Meza entzun ondoren bazkeita. Kabitu ezinik ibiltzen gaitxuk. Batzuek Gaztelupera eta beste batzuek soziedade txiki batera. Txiki horretara gorbatadunak juten ditxuk eta gu Gaztelupera. 160 lagun-edo juntatzen gaitxuk. Gipuzkoarrak danok. Mutriku, Zumaixa, Getaixa, Orixo, Donosti, Pasaixa eta Hondarrabixa. Gipuzkoako kosta dana. Bizkaitarrak Bilbaon eingo die.

*Kapaia*  
Taberna

Erribero Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**STIAOM**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3      943 860151

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

jokin urkidi arraunlaria

# "Irabazitako banderak ezin izan ditut asko gozatu, kanporaketan erabakiko zelako dena"

**Zumaiarren arten arraunlari beteranoena da. Berandutxo hasi zen arraunean, 24 urterekin, baina harrezkero urterik ez du**

**barkatu. Datorren denboraldian ere jarraitzekotan da. Onenen artean aritzeak ilusio berezia egiten dio.**

AITOR MANTEROLA

Hiru aste dira arraunlariak oporrak hartu zituztenetik. TKEra igotzeko helburua lortuta, lasaitu ederra hartu dute zumaiarrek, eta orain gozatzen ari dira. Jokin Urkidirekin aztertu dugu denboraldia eta etorkizuna.

**Hasteko, betiko galdera: bukatu berria den denboraldia nolakoa izan da?**

Ona izan da, baina ez dugu ondo gozatu. Nahiz eta zortzi bandera irabazi, ez zigun ezertarako balio, gero igotzeko kanporaketan aurrean ibili beharra genuelako. Ligako lehen biak zuzenean igo baginen, irabazitako bandera horiek gehiago gozatuko genituzkeen. Alde horretatik gogorra izan da, baina bestela oso ona.

**Presio handiegia izan al duzue?**

Handiegia ez, baina klubean hasieratik esan ziguten helburua TKEra igotzea zela, eta ez baginen igotzen frak-soa izango zela.

**Presio horren eraginez une txarrak ere igaroko zenituzten.**

Bai. Bi izan dira une txarrenak: Ligako lehen estropadak eta Kontxa ondorengo estropadarik gabeko bi asteak. Liga hasieran, gure txanda irabazten



genuen, baina beste txandakoren batek aurrea hartzen zigun. Une horiek nahiko gogorrak izan ziren. Gainera, beste klubetatik etorri diren arraunlarientzat, Euskal Ligan bigarren egitea emaitza txarra zen. Guretzat, aldiz, nahikoa ona. Guk esaten genien, txarrean jarrita ere, puntuak biltzen ari ginela, baina kanpotik etorri direnak beste mentalitate bat dute, beste era bateko presioa. Azken finean, horretara etorri dira. Gero, beste une txarra Kontxarako salkapena bukatu ondorengoia izan zen. Bi aste genituen estropadarik gabe TKEra igotzeko kanporaketa jokatu aurretik, eta gogorra izan zen. Motibazioa asko jaisten da Kontxa ondoren, eta nekatuta ere bageunden, eta egun batzuetan ez genuen gustura arraun egiten. Hala ere, helburua bete beharra zegoen, eta nola edo hala aurrera begiratu beharrean izan gara.

**TKEra zuek eta Zarautz igo zarete, biak Euskal Ligakoak. Maila handiko Liga izan dela azaltzen du horrek.**

Bai, gogorra izan da. Euskal Ligako taldeak igo nahi badu, TKEkoak baino dezente hobea izan behar du. Hasieratik hasi behar da Euskal Ligan puntuak pilatzen, eta sasoi puntu onak irail arte irau behar dizu. TKEkoek Liga txarra eginda ere, beste aukera bat dute kanporaketan. Azken batean,

kanporaketa TKEkoei beste aukera bat emateko jarrita dago. Orain arte, guk esaten genuen Euskal Ligakoek zuzenean igo behar zutela, baina orain TKEN gaudela, egin dezatela nahi dutena (kar, kar). Serio jarrita, kanporaketa ez dago ondo nire ustez.

**Irabazi dituzuen zortzi banderetatik zeinek egin dizu ilusio gehien?** Etxekoak. Izan ere, ni arraunean nabilenetik, ez dakit sekula estropada onik egin dugun etxean. Gainera, ikusle mordoia egon da aurten, eta ilusio berezia egin



dit. Bestela, Zarauzkoak eta Pasaian bi traineruek atera genuena. Marka hori hor geldituko da, eta pozgarria da.

**Arraunean zabiltzanetik, denboraldi honek eman al dizu poz gehien?** Ez dakit ba. Urte ederrak izan ditugu Zumaian, nahiz eta aurten bezain ondo ez ibili. Orain arrauna asko aldatu da, eta lehen, denak etxeokoa

Arraunean nabilenetik ez dakit sekula estropada onik egin dugun etxean.



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379





ginenean, beste ere bateko giroa zegoen. Zumaia ez da behin ere izan presio handia izan duen kluba, eta norberak ahal zuen guztia ematea nahikoa zen. Arraunean ondo egitea beti eskatu izan zaigu, baina sekula ez zaigu esan dena irabazi behar dugula. Irabaziz gero, beti da pozgarria, nola ez.

### **Poz gehiago eman dizuten denboraldiak izan dituzu, hortaz?**

Gogoan dut 2000. urtean, non eta Orion irabazi genuen estropada. Itsoa zakartu egin zen, eta guk ekarri genuen bandera. Urte hark asko markatu ninduen arraunlari bezala, traine-rilletako Gipuzkoako txapelketa ere lehen aldiz irabazi genuelako. Niretzat

bandera hura zerua izan zen. Urte hartan kristoren trainerua genuen, eta urte oso ona egin genuen. Hurrengo ere oso ona izan zen, Getariak eta Zumaia bat egin zutenekoa. Sekulako denboraldia egin genuen, eta niretzat sekulako hankasartzea izan zen bateratze harekin ez jarraitzea. Aurten goa pozgarria izan da, baina nik, behintzat, banderak ez ditut gozatu. Gero, bai, Portugaleten TKEra igotzea lortu genuenean, orduan esaten duzu: "Kristoren urtea egin diagu", baina aurretik, presioaren kontuagatik, ez dut asko gozatu.

### **Igotzeko helburua lortuta barruak hustu zenituzten arraunlariek, eta bazkarian eta ongi-etorrian dena lehertu zen.**

Bai. Hor dena bota genuen, denboraldiko helburua lortuta lasaitu ederra hartu genuelako. Ikaragarria zen, eta hitzik ez dago hori azaltzeko.

### **Klubak aurten dezenteko aldaketa izan du kanpotik begiratuta, behintzat. Barruan ere igarri al duzue aldaketa hori?**

Igarri dugu, bai. Kanpotik etorri diren arraunlariak, ez dakit nola esan, 'profesionalagoak' dira. Arrauna beste konbersaziorik ez dute. Guri, berriz, berdin zaigu honetaz edo hartaz jardun: futbola, herriko konturen bat, afaria... Kanpoko

**Lekin**  
ZEHARRA, S.L.

Ortuzubi Kalea 10, 48940 ZUMAIA. TEL: 943 53 53 05. EMAIL: zeharra@euskalnet.net

**Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet**



**DIGITAL +**

**ongizan**

fisioterapia zentroa  
igor agirre eta idoia uranga

Tel./Fax: 943 53 53 05 • e-mail ongizan@euskalnet.net  
Itzurun Zuhaitz-bidea 3-behea • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)

hauet esan afaria egin behar dugula, eta berehala botatzen dute: "Afaria? Nola? Bihar entrenamendua dauka-  
gu-eta". Beste pentsakera bateko jendea da gure aldean.

### **Bi traineru izatea nola eraman duzue zuen artean?**

Traineru bakoitzean zein ariko zen esan artean, tentsio handia izan da. Gure arteko giroa oso ona izan da, baina tentsio puntu hori hor egon da. Ako traineruan egotea espero zuten batzuk Bn gelditu dira, eta alderantziz. Trainerillak arte betiko giroa izan genuen, etxekoa eta jatorra, baina gero, A eta B bereizi artean, beste era bateko giroa izan zen: ona, baina desberdina. Besta alde batetik begiratura, tentsio horri esker, gogorago edo serioago entrenatu dugu.

### **Eta datorren denboraldian TKE. Zaila da esatea, baina Zumaia nola ibiliko da?**

Azkenak behintzat ez gara izango. Aurtengo koadrila mantenduz gero, eta kontuan izanda, azkenera asko hobetu dugula, nik uste dut bigarren txandan ibiltzeko moduan izango garela. Urtetik urtera asko aldatzen dira taldeak, eta ikusi egin behar, hala ere.

### **Arraunaren etorkizuna nola ikusten duzu?**

Orain dirua sartzen ari da, eta dena ondo doa. Baina batetik bestera dabil-tzan arraunlariak beti berdina dira. Gazte gutxi dago TKEn. 24 urtetik beherako arraunlari oso gutxi dago TKEn, eta adin horretara iritsi arte nola edukiko duzu gazte bat estropadetan parte hartu gabe? Gure B traineruarena oso polita da, baina horko batek ikusten badu, urte pare bat pasata gora egiten ez duela, kosta egingo zaio jarraitzea. Gogorra da arrauna. Lanaren aldetik ere, arazo handiak daude; gero eta errelebo gehiago dago, eta entrenatzeko trainerua osatzea ere zaila izaten da. Egia esateko, ez dakit arraunak non eta nola bukatu duen: edo erabat profesionala edo lehen bezala, dirurik gabe. Zumaia batek TKEn mantentzeko, nahi eta nahi ez egin behar ditu fitxaketak, baina horrek beheko jendeari atak ixten dizkio.

### **Aurrera begira, TKEn ez dagoen kluba desagertzeko arriskuan egongo al da?**

Ba, larri ibili. Igo izana ezinbestekoa ikusten dut. Jende bera dabil batetik bestera eta elkarri arraunlariak kentzen; eta gazteak? Urdaibaik, esaterako, ez du gazterik. Oriok baditu, baina herrikoak bost baino gehiago ez dira. Gure belaunaldiak laster lagako du arrauna, eta gero? Gazte jendearena konpondu beharra dago. Orain dirua



"Aurtengo koadrila mantenduz gero, bigarren txandan ibiltzeko moduan jango gara

dago, baina gero zer? Datorren urteko TKE ere dagoen bezala dago. Ikusi egin beharko da zer gertatzen den. TKE berria da, eta egonkortu arte ikusi egin behar. Telebista ere indarrekin sartu da, eta pilotarekin gertatu bezala, gora egingo du orain arraunak. Telebistak dirua ekartzen du, eta dirua dagoen bitartean arraunlariak egongo dira, baina gero, auskalo. Inork ez daki zer gertatuko den.

**INMOBILIARIA**  
  
**Amaia**  
Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 408

**AIZPURUA**  
LIBRURUDEN  
Alta-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569



# denboraldia argazkitan







# Gorputz adierazpena: komunikatzeko eta adierazteko modu bikaina

**Gorputz adierazpena zer den eta horren bidez zer lortu nahi den adierazi digu Uxua Gainzak, Zumaiaiko kiroldegian klaseak ematen dituen irakasleak.**

MAITANE AGIRRE

Gorputz adierazpena irudikatzeko, komunikatzeko eta adierazteko bidea da. Azken finean, “Norberaren gorputza ezagutzea, sensibilizazioa eta gorputzaren lengoia ezagutzea da”. Horrelaxe adierazi digu Uxua Gainza irakasleak. Gizakiok mugimenduen bidez komunikatzen gara eta gure nortasuna adierazten dugu; horregatik, gorputz adierazpena bultzatzea ezinbestekoa dela diote, norberaren gorputza ezagutzeko eta aldarreak adierazteko.

Zumaiaiko Lubaki Kiroldegian duela lau urte hasi ziren gorputz

adierazpena lantzeko klaseak ematen. Pertsonen alde espresiboari, komunikatiboari eta kreatiboari irtenbide bat emateko eta garatzeko helburuarekin. Uxuak adierazi digunez, ikuspuntu ezberdinetatik begiratuta, baliagarria izan daiteke jarduera profesionaleri, artistikoei, kirolari, ekintza kulturaleri, garapen pertsonalari eta aisialdiari alternatiba bat emateko.

Irakasleak azpimarratu digunez, gorputz heziketaren inguruan ikusitako arlo deskonpentsatuak betetzeko asmoz eta gauzak beste modu batera erakusteko asmoz hasi zen klase

hauek ematen; izan ere, gaur egun, familian izan dugun heziketarik edo ikastetxean daukagun heziketarik, alde intelektuala askoz ere gehiago lantzen da beste atal batzuk baino. Horregatik, “gaitasun fisikoa” eta “jolasak eta kirolak” lantzeko joera arautu horrek alde batetik gorputza eta bestetik burua bereizten ditu eta ez dio jaramonik egiten norberaren emozioen, pentsamenduen sensazioen eta beste inteligentzia mota batzuen adierazpenei.

“Gizakia, gainontzeko bizidunekin erlazionatzeko mugitzen da, bere ideiak eta sentimenduak azaltzen



ditu eta besteekin elkarbanatzeko komunikatzen da. Horixe da, hain zuzen ere, gorputz adierazpenaren funtzio nagusia". Gaur egungo gizartean sortu diren estereotipoen ondorioz, umeen sormen aukerak murriztu egin dira. Mugimendu naturalak galdu eta estereotipatueta goaz eta, horren ondorioz, pertsona bakoitzaren independentzia galduz doa. Gorputzaren barnea ez da lantzen eta horrek hazkundera blokeoak sortitzake. Nahiz eta gure gizartean pentsamendu eta akzio librea izateko baimena eduki, bizitzeko era eta jarrerak mugatzen gaitu.

Esan beharra dago gorputz adierazpenak aldaketa nabarmena izan duela; izan ere, gizartearen egoera aldatzen ari da eta horrekin batera komunikatzeko moduak. Garai batean, gizakiak hitz egiten ez zuenean, komunikazio primitibo erabiltzen zuten elkar ulertzeko; hau da, gorputza erabiltzen zuten beraien beharrik adierazteko eta elkarrekin komunikatzeko. Gaur egun, ordea, gizarteak jasan dituen eraldaketen ondorioz, izugarriko garrantzia ematen zaio ahozko hizkuntzari. "Gizakiak erabiltzen zuen lehen hizkuntza albo batera geratu da garapen handirik gabe; horrela, gizakion lehen hizkuntzatik, hau da, gorputz hizkuntzatik, gero eta gehiago urrunduta gara".

Etorkizunera begira, gaur egungo

teknologiaren aurrerapausoak komunikazio erreminta berri asko sortu ditu eta honek bere onurak eta alde txarrak ditu. Uxuak esan digunez, zenbat eta informazio gehiago eduki, orduan eta askatasun eta independentzia handiagoa daukagu, baina informazio kantitate askok gizakiongan zalantza handiak sortzen ditu. Ziurgabetasuna geroz eta handiagoa da eta horren ondorioz beldurra, segurtasun eza, estresa... eragiten ditu. "Gaur egun teknologiak eskaintzen dituen komunikazio erreminten erabilpena oso zabalduta dago, baina ez gaituzen ahaztu zer garen, eta zertaz eginak gauden; gorputz adierazpena da hori guztia adierazteko daukagun jatorrizko instrumentu aberatsena eta baliotsuena".

Duela lau urtetik dira martxan Zumaian gorputz adierazpena lantzeko klaseak. Gorputz adierazpena era ezberdinetara landu daiteke: dantza, antzerkia, musika, plastika, literatura, psikoterapia, matematika, idazkera..., guztiak ere adierazpena lantzeko erabiliz. Klase hauek, ordea, jendearen adinaren arabera banatzen dira; beraz, irakasleak metodologia ezberdina erabiltzen du adina edo taldearen arabera. "Jaioberrien kasuan, esaterako, beraien lehen komunikazioa gorputz adierazpena da eta, beraz, errazago erantzuten dute. Adinean aurrera joan ahala, intelektualizatuagoak bihur-



# EGOKI



Erloju  
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

## BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
Tel. 943 14 33 69



tzen gara eta gorputzari beldur handia hartzen zaio. Jendea ez dago kontzientziatuta edo eta prestatuta gorputz lana barrutik kanpora egiteko”.

Irakasleak adierazi duenez, 2005-2006 ikasturtean 3urteetik 7urtera bitartean erabiltzen duen metodologia espresionistagoa da. “Proposamen pedagogikoa ez doa zuzenean ikaslearengana, baizik eta gelaren antolaketara”. Kasu honetan, umea-

ren heldutasun etapa psikologikoak kontuan edukiz gela, denbora eta espazio batean organizatzen da. Behin 8 urteetik gora, umeak pentsatzeko heldutasuna garatu ondoren, proposamenak zuzenagoak dira, baina umearen espresioa librea da, tarteka gorputz teknika batzuk sartuta. Helduen kasuan, taldearen arabera jokatzeko duela esan digu. “Bakoitza dagoen puntutik hasita,

poliki-poliki edukiak lantzen joaten gara: gorputz kontzientzia, posturen kontrola, zentzumenen bitartez gorputza sumatzea edo sentitzea, giarren tonu harmoniatsua edo ekonomikoa bilatzea, arnasketa, desblokeoa, elongazioa, deshinibizioa, espazioa eta bere posibilitateak, erritmoa eta musikalitatea, material ezberdinekin jolastu eta lan egin, ahotsaren adierazpen aukerak landu, mugimendu kalitateak, sinbolizazioa, klima ezberdinak sortu, koreografiak erakiki... gorputzak ematen dituen milaka eta milaka aukerak egiteko giroa errazten da espazio honetan”.

Gorputz adierazpena, ordea, ez dagoela modan adierazi digu Uxuak, hemen inguruan guztiz ezezaguna dela eta, horregatik, jendeak ez duela segurtasunik. Hala ere, pixkanaka gero eta jende gehiago ari omen da interesatzen eta galdetzen. “Denbora behar da gaur egungo egoera eta pentsaera aldatzen joateko. Nire ustez, derrigorrezkoa izan beharko luke ikastetxeetan ikasgai bezala lantzea.”

ALTZARIAK  
**OSTOLAZA**  
AROEZTEGIA



Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325



Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



# TOKIKO AGENDA 21



## ZUMAIAKO EKINTZA PLANA

Zumaiako Agenda 21 prozesuak aurrera darrai.

Agenda 21en helbururik nagusiena

garapen orekatua lortzea da, gure zerbitzuak, ingurumena eta ongizatea etengabe eta iraunkorri hobetzeko. Ozain arte herriaren diagnostikoa egin da eta hortik aurrera arlo bakoitzeko helburuak finkatu dira (etxebizitzak, mugikortasuna, ura, energia, baliabide naturalak, kultura, etab).

Momentu honetan herriaren etorkizuna finkatuko duen plangintza definitzen ari gara (Zumaiako Ekintza Plana). Plangintza honetan ekintza zehatzak definitu behar dira hurrengo 4-5 urterako, guzti hau Zumaiak iraunkortasun bidea jarraitzeko asmoz.

Ekintza Planaren zirraborra udal eta herriko ordezkariak eztabaidatu behar dute urrian zehar eta ondoren herriar guztiek aukera izango dute beren ekarpenak egiteko. Beraz, azaroan egingo den H erriarren partehartze foroan edonork parte har dezake eta bertan egiten diren ekarpenak eta iritzirik jasoko dira.

Beraz herendik aurrera dugun lana ez da makala, herriaren etorkizuna definitu behar baitugu ea nolako Zumai nahi dugun datozen urteetan.



## AUTOKARREKIN: AUTOMOBILA KONPARTITZEKO AUKERA

Mugikortasun Astearekin batera Urola Kostako Udalerriaren zerbitzu berri bat eskaintzen hasi da: Udalerriaren herriaren artean autoak partekatzeko zerbitzua. Ekimen honek herriaren artean bidaiatzeko beste modu bat kultzatzen du, joan-etorri batzuk garraio pribatua behar dutela kontuan hartuz. Honela, zerbitzu berri honek ibilbide berdin bat egiteko ibilgailu pribatua partekatu nahi duten pertsonak kontaktuan jartzeko aukera eskainiko du, modu azkar eta eraginkorrean, bere webgunearen bidez [www.urolakosta.org](http://www.urolakosta.org) (Autokarrekina atalean).

INFORMAZIO GEHIAGO:  
Tel.: 943 89 00 45  
[www.urolakosta.org](http://www.urolakosta.org)  
agenda21@urolakosta.org



TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694

## AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsiak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA

*Gure txokoa*

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

Nikol  Enea

**TABERNA**

Amaiako plaza

santiago banda

# “Tocata, Adagio Fugak maitemindu egin ninduen”

ITSASO IBARRA

Santiago Banda organista zumaia-rrak kontzertua eskaini du aurtengo udan, Donostiako Musika Hamabostaldian, organo zikloaren barruan. Organoko ikasketak 21 urterekin amaitu zituen, eta aurten klabezinarekin ikasketak amaituko ditu. Getariako elizako organista da eta etorkizunean musika irakasle izatea gustatuko litzaioke.

## Noiz murgildu zinen musikan?

Zortzi urterekin hasi nintzen Forondan solfoea ikasten; bi urte egin nituen han. Gero, pianoa jo nahi nuela erabaki nuen eta KAMEn, Karmelo Mendizabalen akademian, hasi nintzen; lehendabizi Zumaian eta gero Zarautzen.

## Zergatik hautatu zenuen organoa?

Behin, telebista ikusten ari nintzela, Bachen Tccocata eta Fuga Re menorean entzun nituen eta asko gustatu zitzaizkidan. Gainera, lagun batek beti musika diskoak jartzen zizkidan eta hari galdetu nion ea kantatu horiek

bazituen. Berak disko osoa jarri zidan. Asko gustatu zitzaidan eta disko hori grabatu egin zidan; egunero entzuten nuen. Beste toccata batek ere, Toccata, Adagio eta Fugak maitemindu egin ninduen eta hori jo arte ez nintzela geratuko erabaki nuen. Hala, 16 urterekin hasi nintzen organoa jotzen.

## Non egin dituzu organo ikasketak?

Donostiako Musika Kontserbatorioan Esteban Elizondorekin hitz egin nuen eta klaseak hartzen hasi nintzen. 21 urterekin amaitu nituen ikasketak, eta oraindik ez dut jo Toccata, Adagio eta Fuga.

## Zergatik ez?

Zaila da, errespetua diot obrari; izan ere, ikaragarri gustatzen zaidan pieza da. Egunen batean joko dut eta gusturara, gainera.

## Organoa joaz sariren bat edo beste ere irabazi duzu.

Santiagon (Compostelakoan) ikastaro bat zegoen. Bertan, Andres Segovia-JR Morales saria ematen zuten eta saria



“Organoa hiletako musika tresna bezala ezagutzen da”

## H o r t z k l i n i k a

MOZÈS HIRIART eta SOULIER  
Odontologoak

- \* Odontologia orokorra
- \* Periodontzia (kirurgiari gabe)
- \* Endodontzia
- \* Inplantologia
- \* Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- \* Protesia
- \* Hartz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

## ZALLA

Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



niri egokitu zitzaidan. Donostiako Musika Kontserbatorioan ere azkene-ko kurtsoan bikain ateratu nuen. Ondoren, beste proba bat egin zidaten eta hori gaindituta ohorezko sariarekin amaitu nituen organo ikasketak.

**Kontzertuak eskaini izan dituzu?**

Euskal Herrian, Alacanten eta Palentzian eman izan ditut. Zumaian 2000.enean emandakoa ere berezia izan zen. Kontzertu hartako progra-

ma oso zaila zen eta oso ondo ateratu zitzaidan. San Pedro parrokian Bachen Fantasia eta Fuga sol m, Mendelssohnen Laugarren sonata, Allenen Letaniak... eta beste hainbat obra jo nituen. Zumaian gustura eskainiko nuke beste kontzerturen bat, edo batzuk...

**Aurtengo udan, berriz, Donostiako Musika Hamabostaldian izan zara organo zikloaren barruan.**

Kontzertu hori nire karreraren aurrerapauso handia izan da. Besteak beste, Daniel Roth, Willibald Guggenmos eta Jose Maria Azkueren ondoan egon naiz, eta horiek dauden irakasle onenak dira. Kontzertuan hainbeste kamera eta argirekin uste nuen ez nintzela eroso egongo, baina gustura egon nintzen eta kontzertua ondo ateratu zen. Bertan, Aita Otañoren omenez idatziriko obra berriak jo nituen. Obra horiek XX. mende hasieran topatu ziren, baina Loiolan egon dira eta han daude gordeta. Aurten jo dira eta obra horiek datozen zortzi urtetan ere joko dira.

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A

**Antonio Etxabe**



*Gizonezkoen erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058

**Ertz**  
informatika

tresna digi-  
internet  
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95



CROISSANTERIA



pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

**Rosi**  
garbiketak

- \* Etxeak eta dendak
- \* Enpresa eta auzo lanak
- \* Europa garbiketeta eta tintaketak

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

**Galdona**



burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330



**Mundu mailan badira organo ezagunak. Zein dituzu zuk gustuko?**

Hainbeste daude... Euskal Herrian oso organo ederrak dauzkagu; Donostiako Santa Maria basilikako organoa eta Azkoitiko mundu osoan oso famatuak dira. Frantzian eta Alemanian ere asko daude onak.

**Eta Zumaiakoa?**

Txikia da, baina oso ederra. Organo erromantikoa da. Bi teklatu dauzka, bat eskurako eta bestea hankarako. Hamabost joko ditu eta Parisen egina da.

**Hainbat organo aipatu dituzu. Baina organoa musika tresna ez al dago baztertuta?**

Euskal Herrian adibidez ez da asko ezagutzen, baina beste leku batzutan oso ezaguna da. Normalean, gazteenzat elizako instrumentua da edo hiletako musika tresna bezala ezagutzen da. Baina organoak aukera asko ematen ditu eta gaur egun auditorio-

etan ere egiten dira kontzertuak; izan ere, errepertorio ederra dago organo eta orkestrarentzat.

**Non eskainiko zenuke gustura kontzertu bat?**

Toki askotan. Esaterako, Frantzian Toulousen, Rouenen, Parisen. Holandan, Harlemen...

**Zein autoreren obrak dituzu gogoko?**

Bach, Mozart, Cesar Frank, Reger, Messiaen, Mendelssohn, Alain...

**Zer sentitzen duzu kontzertuan zaudenean?**

Poliki-poliki obran sartzen joaten zara. Hasierako obran nahiko urduri baldin bazaude, dena mekanikoki egiten duzu eta ondo ateratzen da, baina gero geratu egiten zara... Eta interpretatu, jo, entzun... Utzi egin behar diozu zeure buruari...

English School **Harvest**

Ingeleseko klaseak adin guztietan  
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051

**S** DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaiaiko plaza, 2  
Tel. 943 143278

**Maita**  
ileapaindegia

**Auto-konponketak**

**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01

**PEUGEOT**

**Malaur**

## ZINE FORUM

urriak 20, osteguna, gaueko 10:15ean

### Familia rodante

**Zuzendaria:** Pablo Trapero **Aktoreak:** Graciana Chironi, Liliana Capuro, Ruth Dobel

Emilia andre maitagarriak ilobaren ezkontzan amabitxi izan behar du eta horretarako bidaia luze bat egin beharko du. Bidaia handi horrek izugarrizko aldaketa dakar Pablo Trapero zuzendariaren zinema-dirkurtsoan. Izan ere, aurretik Traperok bi lan bikain eginak zeuzkan («Mundo grúa» eta «El bonaerense»), oso tonu itsusizalearekin filmatuak, baina oraingoan tonu hori albo batera utzi beharko du komedia gazi-gozo hau egin eta bere amonari, Graciana Chironi aktore bikainari, omenaldi beroa eskaintzeko. Mirespen hori ederki islatzen da azkeneko eszenan, hain geldia eta hunkigarria. Baina amaiera baino lehen, «Familia rodante» emozioz beteriko road movie eredu garri gisa ageri zaigu; izan ere, Traperok ondo baino hobeto asmatu baitu familia bateko fobia eta filia guztiak auto-karabana zahar batean sartzen.



Lau belaunaldi leku txiki-txiki batean sartzeak itomena eragingo du, azkenerako ibilgailua presio-eltze bihurtuko da eta leherketa psikologikoa etorriko da. Ikusleak ederki ezagutuko ditu talde horren baitan dauden izaera desberdinak. Errepideak bakoitza bere tokian jarriko du eta etengabe etorriko dira elkarren atzetik barreak eta negarrak. Hori guztia, amonaren begirada ernearen aurrealdean, nahi bakarria baitu amandreak buruan: nola edo hala, baina panpan zehar egin behar duten ibilera bero eta nekagarria ezkontza-aldarean bukatzea.

azaroak 3, osteguna, gaueko 10:15ean

### Lila dice

**Zuzendaria:** Ziad Doueiri **Aktoreak:** Vahina Giocante, Mohammed Khouas, Karim Ben Haddou

Lolita Cassard nora-ezean dabilen neska sentikorra da komedia honen pertsonaia nagusia. Bere pisuz lotsatu egiten da, eta inguruan inork ez dio behar duen arreta eskaintzen. Etienne, aita, sorkuntza krisian murgildutako idazle eta argitaratzaile ospetsua da, beti oso lanpetuta, eta Karineren, andregai gazte panpoxaren, desioak bete nahian. Lolitari kantu ikasketak ematen dizkio Sylvia andereñoak; Pierre, berriz, haren senarra da, orain arte arrakastarik izan ez duen idazlea. Bion bizitza erabat aldatuko da Lolita idazle miretsiaren alaba dela ohartzen direnean. Horiekin guztiarekin batera, neskatoaren laguntza jasoko duen Rachid gaztea, arazorik ez izateko Sébastien izena erabiliko duena.



Musika eta idazketa munduan kokatzen den pelikula hau pertsonaia askoren bide gurutzatzea da, hainbat istorio harilkatuz, autoestimua eta norbera den bezala onartzeaz diharduena, irudiari garrantzi handiegia ematen dion gizarte honi kritika eginez.

Aktoreen lana, zoragarria; elkarriketak, bikainak... Cannes-en gidoi onenaren saria jaso zuen merezimendu osoz zuzendaritza eta antzezle lana betetzen duten bikote honen filmak. Zinematik lurra ukitu gabe pozez irtetea lortzen duen harribitxi gomendagarria.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

**AR** Ricardo J. Azcue Yeregui  
Abokatu • Asegurak  
Finka Administrazioak

bonin aguirre-4, behea  
20.750 zuzena (giuzkoo)  
E-mail: rajazcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651  
Fax. 943 862748



## ERAKUSKETAK

KEIXETA: Urriaren 12a arte.  
Alondegia aretoan, 6etatik 8etara.  
"GENERO INDARKERIAREN AURKA": kartel erakusketa.  
Azaroaren 25etik abenduaren 11ra.

## IRTEERAK

TURISMO BULEGOA:  
Zumaia Kulturala: 16:30.  
Beobidieren museoa, parroikia, kanpandorra...  
Egunak: Urriak 15 eta 30, abenduak 8 eta 10.  
Algorri-Izurun: 12:00etan. Bi orduko iraupena. Urriaren 9an  
Trekking Deba- Zumaia: 9:00 etan.  
Irailak 25 eta urriak 16 an.  
Zumaia bira: 8:40ean Urriaren 2an  
OPERA EUSKALDUNA JAUREGIAN  
Azaroaren Mozart-en "Don Giovanni" opera.  
Argibideak eta sarrerak kultur etxean azaroaren 2tik aurrera.

## DEIALDIK

ASTEBURU MIKOLOGIKOA:  
urriaren 28tik 30era.  
ZUMAIKOA IV.KLARINETE MARATTOIA: Azaroan. Adi programari!

## IKASTAROKAK

INTERNET KZGUNE (20 ORDU):  
943-862866  
Urriak 17-tik 28-ra, 16:00-tatik 18:00-etara eta 18:00-etatik 20:00-etara.  
Azaroak 2-tik 15-era, 10:00-etatik 12:00-etara.

Azaroak 21-etik Abenduak 2-ra,  
9:00-tatik 11:00-etara, eta 11:00-etatik 13:00-etara.

KULTUR ETXEA ANTOLATUTA:  
943-861056

YOGA:  
Astearte eta ostegunetan 18.30ean kultur etxean.

KONTROL MENTALA:  
Urriaren 15etik azaroaren 26ra,  
larunbatetan 10.30ean.

KOMIKI IKASTAROA  
Urriaren 15etik abenduaren 3ra.  
Larunbatetan, 11.00etatik 13.00etara.

PINTURA TAILERRA:  
Astelehenetik ostegunera.  
Antolaketa bilera: urriaren 6an 19.00etan kultur etxean.

ELIKADURA ETA DIETAK:  
Azaroan, asteazkenetan 3etatik 5etara.

SUKALDARITZA: "Kontserbak eta mermeladak"

Urriaren 27an eta azaroaren 2 eta 3an.

IPUIN TAILERRA:  
Azaroaren 5etik 26ra. 10.00etatik 12.30era

BI ARRI: Eskulanak, Tiffany, Patchwork eta Josteko lan txikiak.

Urritik ekainera. Egunero, goiz eta arratsalde Alondegia eraikuntzan.

TAI CHI: hasiberrientzat eta ibilientzat. Astelehen eta ostegunetan.

SABEL DANTZA: Larunbat goizetan, urriaren 15etik abenduaren 17ra, 11etatik 13etara.

AUTOESTIMA TAILERRA  
Egunak: urriak 10, 13, 17, 20 eta

24, azaroak 14, 17, 21, 24 eta 28  
Abenduak 1 eta 12 ordua: 3etatik 5etara

Tokia: eusebio gurrutxaga plaza.  
Gizarte zentroan  
Izen ematea: gizarte zerbitzuetan  
943-862200

MASAJE IKASTAROA:  
Azaroan eta abenduko lehenengo bi astetan, asteazkenetan, 7etatik 9:30era. Informazio gehiago Siwa belardendan. 943-143404

## URRIA

16, igandea  
11.00etan eta 13.00etan Haur antzerkia "Tramankuluak"  
20, osteguna  
17:30ean Ipuin kontaketa Haur liburutegian "Kandelaren argipean" taldearen esku  
22.15etan Aita Mari aretoan, zine forum saioa "Familia rodante"  
27, osteguna  
22.15ean Aita Mari aretoan, zine saio berezia, Nazioarteko Animazio Eguna dela eta "Humores animados"  
28, ostirala  
22.00etan Aita Marin, antzerkia "El hombre de los dados"

## AZAROA

3, osteguna  
22.15etan Aita Mari aretoan, zine forum saioa "Lila dice"  
7tik 10era: 19.30ean Aita Marin, Zine sozial zikloa  
Astelehena: "Un toque de canela"  
Asteartea: "A las 5 de la tarde"  
Asteartea: "La pesadilla de darwin"



Sabel dantza

Sabel dantza ikastaroa izango da urriaren 15etik abenduaren 17ra bitartean Beheko Plazako Hogarrean. Ikastaroa larunbatetan emango da 11:00etatik 13:00etara eta irakaslea Sebastopoleko Titiriteroetako kide bat izango da.

Osteguna: "El señor Ibrahim y las flores del Coran"  
17, osteguna  
17:30ean Ipuin kontaketa Haur liburutegian "Kandelaren argipean" taldearen esku  
22:15ean Aita Mari aretoan, zine forum saioa "Perder es cuestión de método"  
19, larunbata  
Arratsalde-Iluntzean Udal Musika

Bandaren Santa Zezilia ospakizunak  
20, igandea  
12.00etan Aita Mari aretoan, haurrentzat opera saioa "Hansel eta Grettel"  
22, asteartea Santa Zezilia, Musikoen eguna: herriko musika taldeen kalejira eta ekitaldiak.  
27, igandea Santa Zezilia ospatuz, San Pedro Abesbatzak Meza Nagusi abestia.



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua  
- Praktika eta azterketak Azpeitian  
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21



taberna  
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083



# Casa BASUSTA



CASA  
**BASUSTA**  
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
Zeramika-lanak eta zurhezko saskiak



*Etxez etxeko zerbitzua*

Santiago Buzoa, 18 TEL: 943 862611

Zure  
larruazala  
leun-leun  
goza  
dezazun

# FotoDepilazioa

Hilabetero  
eskaintza  
Bereziak  
galdetu lasai

**Depitotal**  
L

Tel. 943 86 13 22  
Bonifacio Etxegarai z/g  
Zumaia

**Coro  
Prieto**  
Estetika  
Zentroa